



Sarean ikusita



Bideoak

Esaera zaharrak, kondairak, ... Denetarik duzu hemen!

2021-03-04 Admin

Kondairak gogoko dituzu? Edota euskal esaera zaharrak? Hona hemen ekoiztu ditugun

Albisteak

XVII. mendeko inkisizioa salatuko du Gero Axular Dantza Taldeak

2021-12-10 Libe Garcia Kandina

Gero Axular Dantza Taldeak *Higa* izeneko ikuskizun berria eskainiko du larunbat honetan, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, arratsaldeko 19.00etan. XVII. mendearen hasieran Donibane Lohizuneko emakumeek sufritu zuten inkisizioaren jazarpena islatzen duten 26 dantza desberdinez osatuta dago ikuskizuna eta guztira 110 dantzarik hartuko dute parte. Horrez gain, bederatzi musikarik zuzeneko musika eskainiko dute ordu

eta erdi irauten duen emanaldi horretan. *Higa* ikusi nahi duenak eskuragarri ditu sarrerak [Donostia Kulturaren webgunean](#).

Juan Luis Unzurrunzaga koreografo eta Gero Axular Taldeko zuzendariak aurkeztu du *Higa* gaur goizean, Victoria Eugenia Antzokian, eta berarekin izan dira Ane Rincón eta Aimar Pérez dantzariak ere. **“XVII. Mendean Donibane Lohizunen emakumeek ikaragarri sufritu zuten emakume izateagatik. Emanaldiaren lehenengo zatian ikus daiteke nola gizonezkoak Terranova aldera joaten ziren baleak arrantzatzerara. Bitartean, emakumeak bakarrik geratzen ziren herrian beraien familia eta etxea zaintzen. Garai haietan liskar batzuk izan ziren Lapurdin eta Frantziako erregeak Pierre de Lancre epailea bidali zuen bertara auzi hori konpontzeko. Lancre konturatu zen lurralde osoan emakumeek gobernatzen zuten gizarte-antolamendua zegoela eta baita berak ezagutzen ez zituen hizkuntza eta kultura berezi bat ere. Hori Frantzian pentsaezina zen, beti gizonezkoa baitzen etxea gobernatzen zuena”,** azpimarratu du Unzurrunzagak.


Horrez gain, Lancre ezinezkoa omen zitzaion ulertzea emakumeek sendabelarrekin pertsonak sendatzen zituztela, medikurik gabe. Mutiko eta neskatoei galdeketak egin zizkieten, eta ondorioztatu zuten **lapurtarrak ez zirela frantziarren edo espainiarren ezpalekoak**. Lancre ez zitzaion gustatu ez hain bizimodua, lan egiteko modua eta ezta haien janzkera edota dantzak ere. **“Zuzenean sorgin gisa izendatu zituzten, eta torturatu eta bizirik erre zituzten.** Ikuskizuneko historia gizonak Terranovatik itzuli zirenean eta liskarrak pixka bat baretu zirenean amaitzen da”, azaldu du.

Unzurrunzagaren arabera, historian zehar inkisizioak indar asko izan du eta **emakumeak oso gaizki tratatuak** izan ziren. **“Egoera hori salatu nahi dugu ikuskizun honen bidez.** Gaur egun, oraindik ez dago gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun hori eta nahiz eta historikoki inkisizioa oso markatuta egon, **gaur egungo egoerak ere injustua izaten jarraitzen du”,** azpimarratu du.

Higa lau zatitan banatu dute. Lehenengoan Donibane Lohizuneko **marinelen bizimodua** kontatzen da; bigarren zatian bertan gertatu ziren **liskarren eta Lancren etorreraren inguruan** hitz egiten da; hirugarrenengoan Lancre emakume horiek **sorginak** zirela uste zuela azaltzen da; eta laugarren zatian gizonezkoak itzuli eta nolabait **“bizitza normala”** bueltatzen dela adierazten da. **“Zuzeneko musika egongo da** eta abesti batzuk Andoni Iparragirrek, gure musika

bideoak, euskara lantzeko eta gure kultura hobeto ezagutzeko oso

Eduki hau partekatu:



E-posta



Euskaraz
Gutuberrak Mintzo

📅 2021-03-06

📅 2021-03-04

katalogoa.e
Tropela.us us

📅 2021-03-06

📅 2021-03-04

Zaldibarko
Berbalagun
en bloga Blogak.eus

📅 2021-03-06

📅 2021-03-04

Jokoak sarean doan

[Call of Duty: Warzone](#)

[Final Fantasy XIV](#)

[Fortnite](#)

[World of Tanks Blitz](#)

zuzendariak, egin ditu. Beste abestiak aurretik ezagutzen genituen, baina moldaketa batzuk egin dizkiegu. **Erabiltzen ditugun koreografia eta dantza guztiak berriak dira, baina pauso tradizionalak** erabiltzen ditugu, eta jantziak ere berriak egin ditugu ikuskizun honetarako. **XVII. Mendean gure kostaldean erabiltzen ziren jantzien itxura dute**”, zehaztu du.

Nabarmenezkoa da **gizarte-konpromisoa praktikara eraman dutela** lan berri honetan Emaus Fundazioarekin eta ApoyoDravet elkartearekin egindako hitzarmenak baliatuta. Hori dela eta, ikuskizuna hasi baino lehen ApoyoDravet elkarteak sari bat emango dio Gero Axular Dantza Taldeari.

Eduki hau partekatu:



← [Euskaltzaindiak bertsoaritzaren historia dakarkigu](#)

[Euskal kulturaren belaunaldien arteko erreleboa](#) →

Gogokoa ere izan dezakezu


Euskal gazteek datorren urtetik aurrera 'Gazte Txartela' doan jasoko dute 14 urte betetzerakoan

📅 2019-12-09



Garionek emakume sortzaileentzako agertoki espezifiko bat ireki du

📅 2021-10-15



Durangoko Azoka, aurten ere arrakastatsua

📅 2020-12-06

[Dauntless](#)

[Auto Chess](#)

[Apex legends](#)

[Tetrix](#)

[Supremacy 1914](#)

[Knights and brides](#)

[Drop guys](#)


Paperezko azken zenbakia

Millions of books, audiobooks, ma



1 de 20

GAZTEON KZ aldizkariko edukiak baimenik
eskatu
gabe
kopia
tu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu,
beti ere, bere jatorria aipatzen baduzu.



Baliabideak

LAGUNTZAILEAK

Zabaltzen ditugun
albiste,
erreportaje,
elkarrizketa eta
gainontzeko
edukien kalitatea
bermatzen
saiatzen gara.

AINTZATESPENAK

Webgune
honetako edukien
hizkuntzaren
kalitatea zaintzen
saiatzen gara.
Horrek ez du
eragozten
batzuetan akatsak
gertatzea.

Horrelakorik
aurkituko bazenu,
gurekin
harremanetan
jartzeko eskatzen
dizugu.